

PRESIDENTEA:
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2015eko UZTAILAREN 23an EGINIKO
OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Xabier Artiñano

Arespalditzan, Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamabosteko uztailaren hogeita hiruko arratsaldeko zazpiak direnean, Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna buru dela, ezkerrean aipatutako zinegotziak, deialdia eginda, elkartu dira ohiko bilkura egiteko, Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat, eta Naiara Lazpita Marcos andreak idazkari-zereginak egin ditu.

Ez da bertaratu: Montse
Angulo

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak bilkurara ongietorria eman die guztiei, eta besterik esan gabe eguneko aztergaien zerrendan dauden gaiak aztertu eta bozkatu dituzte:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2015eko ekainaren 13an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Gaiari buruz ez dute ezer aipatu, eta akta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

2.- Onestea, bidezkoa bada, 2015eko uztailaren 2an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Aktari buruz, Iraida andreak (AB) esan du 4. puntuan, "Informazio Batzordeen Osaketa", Bilduk egin zuen iruzkina jasotzen dela. Bilduk esan zuen hirigintzako batzordea eta obra eta zerbitzuetako batzordeak bereizita egon beharko luketela. Puntu horretan, aldiz, ez da Aiara Batuzek esan zuena jasotzen. Euren aburuz, horiek bereiztea ez zen egokia, izan ere, aurreko legealdian ikusi zen sarritan puntu nahikorik ez zegoela, eta beraz, arlo biak elkarrekin mantentzea egokiagoa zen.

Idazkariak esan du aldatu egingo duela.

Gaiari buruzko beste ezer esan gabe, akta aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

3.- Onestea, bidezkoa bada, "Luiadondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko" obraren 2015eko maiatzeko 6. ziurtagiria, 35.123,94 euroko zenbatekoa duena (BEZa barne).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

OINARRIA: 2014ko azaroaren 17an osoko bilkurak egindako akordioa dela eta, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, SL enpresari “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko” obraren kontratua esleitu zitzaion, 635.642,68 euroko zenbatekoarekin, eta BEZari dagozkion 133.484,96 euroekin.

IKUSI DA:- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak aurkeztutako 6. ziuertagiria eta 35.123,94 euroko faktura (BEZa barne).

OINARRIA.- D. P. O. jaunak, obraren zuzendariak, egindako aldeko txostena.

Osoko Bilkurak, aho batez, honako ERABAKI hau hartu du:

Lehenengoa.- Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak igorritako Seigarren Ziuertagiria, 35.123,94 euroko zenbatekoa duena; eta aipatutako gastua baimentzea.

Bigarrena.- Diruzaintzari agintzea 35.123,94 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.”

4.- Onestea, bidezkoa bada, "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko" obraren 2015eko ekainaren 7. ziuertagiria, 5.443,87 euroko zenbatekoa duena (BEZa barne).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

OINARRIA: 2014ko azaroaren 17an osoko bilkurak egindako akordioa dela eta, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, S.L. enpresari “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko” obraren kontratua esleitu zitzaion, 635.642,68 euroko zenbatekoarekin, eta BEZari dagozkion 133.484,96 euroekin.

IKUSI DA:- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak aurkeztutako 6. ziuertagiria eta 5.443,87 euroko faktura (BEZa barne).

OINARRIA.- D. P. O. jaunak, obraren zuzendariak, egindako aldeko txostena.

Osoko Bilkurak, aho batez, honako ERABAKI hau hartu du:

Lehenengoa.- Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak igorritako Seigarren Ziuertagiria, 5.443,87 euroko zenbatekoa duena; eta aipatutako gastua baimentzea.

Bigarrena.- Diruzaintzari agintzea 5.443,87 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.”

5.- Onestea, bidezkoa bada, Ur Agentziarekin lankidetzaz-hitzarmena, URAk eta Aiarako Udalak, erakunde ur-hornitzailea denez gero, uraren kanona kudeatzeko konpromisoaren baldintzak arautuko dituena.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

IKUSI DA.- Ur Agentzia eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena, URAk eta Udalak, erakunde ur-hornitzailea denez gero, uraren kanona kudeatzeko konpromisoaren baldintzak arautuko dituena.

IKUSI DA.- Obrak eta Zerbitzuak, Hirigintza eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2014ko uztailaren 14an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako ERABAKI hau hartu du:

Lehenengoa.- Onestea UR Agentzia eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena.

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Aipatutako hitzarmena jakinaraztea UR Agentziari, aipatutako hitzarmenaren bi kopia sinatuta bidal dezaten, Udalak sinatzeko.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Comercial de Limpiezas Villar enpresari kalte-ordaina, Gurbisa Servicios Auxiliares, SL enpresak langile bati zor zizkion zenbatekoak elkartasunez ordaintzera derrigortua izateagatik (Gurbisa Servicios Auxiliares enpresarekin batera), udaleko eraikinen garbiketa-zerbitzuaren esleipenduna zenez gero.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

IKUSI DA.- Comercial de Limpieza Villar, SA enpresak ekainaren 12an aurkeztutako idazkia. Garbiketako langile batek demanda jarri zien udaleko instalazioak garbitzeko zerbitzu-kontratua zuen enpresari eta kontratu berria izango zuen enpresari. Aurrez aipatutako enpresak demandak sortutako zenbatekoa abonatu zuen, eta idazki horren bitartez, Udalari eskatzen dio kalte-ordainak ordaindu diezazkion, zenbateko hori abonatzeagatik.

GERTAKARIAK- Bilboko Lan Arloko 1. zenbakiko Epaitegiak ebazpena aurkeztu du. Haren bitartez, M^a R.T. del R. andreak jarritako demanda aintzat hartuta, elkartasun-zigorra jartzen zaie GURBISA Servicios Auxiliares SL eta Comercial de Limpieza VILLAR, SA enpresei, kontratua bukatzen duen enpresak langileari zor dizkion zenbatekoak ordaintzeko. Halaber, Comercial de Limpieza VILLAR, SA enpresak 943,40 euroko ordainagiria baieztatu du, zorretako zenbatekoen, interesen eta kostuen kontzeptuarekin.

GERTAKARIAK.- Comercial de Limpieza VILLAR SA enpresari esleitutako garbiketa-zerbitzuko kontratuaren oinarri zen baldintza-agiriaren 14. klausulak honako hau ezartzen zuen: kontratatzaileak aurreko esleipendunak ordaindu ez zituen lan-betebeharrak

ordaindu behar baditu, indarreko araudiari jarraituz, administrazioak kontratudun enpresari kontzeptu horretan ordaindutako zenbatekoaren zenbateko berdineko kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio. Betiere, aurreko esleipendunaren baldintza ekonomikoak aintzat hartuta, ikusten bada bere eskubidea erabiliz kalte-ordainak jaso ezingo dituela. Horrez gain, klausulak honakoa jasotzen du: administrazioak kontratatzaileari kalte-ordainak ordaintzen badizkio, horrek ordainketa jasotzeko ekintzak egin beharko ditu aurreko esleipendunaren kontra; edo konkurtso-deklarazioko kasuetan, bere kreditua jakinarazi beharko du, eta bere kreditu guztia edo kredituaren zati bat jasoko balu, ordaindu zaizkion zenbatekoak bueltatu beharko lizkioke administrazioari.

GERTAKARIAK.- 2013ko urriaren 29ko osoko bilkuran, udalak GURBISA Servicios Auxiliares, SL enpresari esleitutako garbiketa-zerbitzuko kontratua ebatzi zuen, eta bere garaian emandako fidantza konfiskatu zuen.

GERTAKARIAK.- Aipatutako osoko bilkuraren akordio horretan pieza banandua hasi zen, kontratua likidatzeko aldeei dagozkien eskubide eta betebeharrak eta sor zitezkeen kalte-galerak zenbatzeko. Horrez gain, kontratatzaileari 10 eguneko epea eman zitzaion Udalean langileen soldaten eta 2013ko uztaileko, uztaileko apartekoaren, abuztuko, iraileko eta urriko gizarte-aseguruen ordainagiriak aurkezteko, izan ere, ordainagiri horiek ez ziren eman, eta beraz, kontratua ez zen bete.

Era berean, adierazi zen, hori ez egitekotan, ulertuko zela betebeharrak ez direla, likidazioan kontuan hartzeko. Ohartarazi zen, halaber, hala behin betiko fidantza nola kontratatzaileari ordaindu beharreko zenbatekoak berme gisa erabiliko dituela Udal honek, garbiketa-zerbitzuaren kontratu berriaren enpresa esleipendunari ordaindu beharreko kalte-ordainak aurre egiteko, langileak subrogatzeagatik. Halaber, aurreko esleipendunak bete gabeko lan-betebeharrak ordaintzeko kondenari aurre egiteko erabiliko da, indarrean dagoen lan-legeriarekin bat etorritz.

GERTAKARIAK.- Jakinarazpena egin eta gero, eta konkurtso-administratzailearekin behin eta berriz errepikatutako kudeaketak gorabehera, kontratua bukatzen duen enpresak, konkurtsoan dagoenak, ez du informaziorik eman langileen soldaten eta 2013ko uztaile eta urria bitarteko gizarte-aseguruen ordainagiriei buruz.

Langileei ordaindu gabeko zenbatekoak geratzen direla jakinarazi dute, eta aldeztu aurretik aipatutako ebazpenaren bidez ordaindu gabeko zorraren zati bat egiaztatuta da. Beraz, aintzat hartu beharko dira zenbateko hori, osoko bilkurak 2015eko apirilaren hogeita hiruan egindako akordioan jasota dagoena eta dagoeneko abonatu dena, eta indargabetutako kontratuaren behin betiko likidazioan udalari sortutako kalte-galera gisa egiaztatutako direnak, dagozkion ondorio legalerako.

OINARRIA.- SPKLTBa onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako ERABAKI hau hartu du:

Lehenengoa.- Jakinarazitzat ematea Comercial de Limpieza VILLAR SA enpresak 943,40 euro abonatu dizkiola M^a R.T. del R.andre langileari, lan-betebeharrengatik, interesengatik eta kostuengatik zor zizkion zenbatekoen kontzeptuan.

Enpresa horri 943,40 euroko kalte-ordaina ematea.

Enpresari agintzea eman zizkion zenbatekoak udalari bueltatzeko, baldin eta konkurtsoan bere kreditua jakinarazi eta gero bere kreditu osoaren edo zati baten ordainketa jasoko badu.

Bigarrena.- Pieza bananduaren tramitazioa jarraitzea, bere garaian GURBISA Servicios Auxiliares, SL, enpresarekin, orain konkurtsoan, sinatutako garbiketa-zerbitzuko kontratua likidatzeko aldeei dagozkien eskubide eta betebeharrak zenbatzeko; eta abonatutako 943,40 euroak udal honi sortutako kalte-galerak gisa egozte.

Konkurtsu-administratzaileari 15 eguneko epea ematea alegazioak egiteko, eta ohartaraztea, zenbateko hori, etorkizunean jakinaraziko diren langileei ordaindu gabe utzi zaizkien zenbatekoak, eta dagoeneko ordaindu diren 3.679,54 euroak langileei zor zaien zenbatekotik deskontatuko direla. Izan ere, zenbateko horiek eta behin betiko fidantza berme gisa erabiliko ditu administrazioak, garbiketa-zerbitzuaren kontratu berriaren enpresa esleipendunari ordaindu beharreko kalte-ordainei aurre egiteko, langileak subrogatzeagatik, eta aurrekoak bete ez zituen lan-betebeharrak ordaintzeko. Horrela, kontratuaren behin betiko likidazioan zenbatuko dira.

Hirugarrena.- Akordio hau jakinaraztea Comercial de Limpieza VILLAR, SA enpresari eta GURBISA Servicios Auxiliares, SL konkurtsu-administratzaileari.

Ebazpen honen lehen puntuaren kontra aukerako berraztertze-errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzenean aurkeztu Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean bi hilabeteko epean.

Bigarren puntua tramite hutsa denez, ezin da inolako errekurtsorik jarri, egokitzen jotzen diren egintzak kontuan hartu gabe.

7.- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana, 2016-2017.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du ikastolan egin nahi diren esku-hartze batzuk Hezkuntza Sailak jantokiko lan-osasunari buruz egindako txosten batean adierazitako gabezien ondorio direla.

Xabier jaunak (AB) adierazi du estalkia polikarbonatoarekin handitzeko eskaera egin nahi dutela, eta aprobetxatu eta erabat itxita utzi beharko zela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du hori lehenengoago esatea eskertuko luketela, aparejadoreak aurrekontua egin ahal izateko. Esan du, bestalde, aparejadoreari jakinaraziko diola, baloratu dezan eta laguntza eskatzeko bidaliko den aurrekontuan gehitzeko.

Josu jaunak (Bildu) adierazi du ados daudela ikastolako gaiarekin, guztiz estaltzeko iradokizun hori barne.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) sindikatuko eraikina berritzeko obrari buruz hitz egin du. Proposamen hori iradoki zen, Foru Plana kontsultatu ondoren, pistak estaltzeko eta poligonoa saneatzeko diru-laguntza eskatzea ezinezkoa ez zela ikusi zelako.

Horregatik, eraikinaren gabeziak ikusita, eta kontuan hartuta udalak lekuak behar dituela, eraikina birgaitzea proposatzen da, estalkiari eta fatxadei garrantzia emanez, eta espazio argiak utziz. Aurrerago izan ditzakeen erabilera gehiago aztertuko dira.

Josu jaunak (Bildu) esan du Foru Planari diru-laguntza eskatzeko denbora gutxi egon dela, garai txar batean gertatu dela, dena presaz egin dela eta eraikinaren potentziala xedatu eta aztertu ez dela. Komentatu du eraikin horri etorkizun handirik ez diotela ikusten. Lehenik eta behin, kuadrillak egoitza Amurrion lekualdatzeko akordioa duelako. Eta, bigarrenik, obraren bideragarritasuna ikusten ez dutelako, beharbada, behar bezala aztertu ez dutelako. Ondorioz, obrari zehaztasun gehiago emateko, obra berandutu daiteke.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du erakinari aurrerago emango zaizkion erabilerak arretaz aztertu eta behar bezala zehaztu daitezkeela. Baina orain, argi dago eraikinak baldintza egokiak ez dituela, ezta ematen ari zaion erabilerarako ere; oso baldintza txarretan dago.

Josu jaunak (Bildu) esan du Aiaran ekipamenduak badaudela: Arespalditzako ludoteka, Luiaondon birgaitzen ari den eraikina, Batzarren zentro edo ekipamenduak (Batzarrei zentro horiek eskatu ahal zaizkio udal-jardueraren bat egiteko), ludoteka. Eta Luiaondoko kontsultategia hutsik geratuko zen. Ustezko hornidura horiek eta erakin hori birgaitzeak ekarriko duen gastua planteatuta, obra hori egokia ez dela uste dute.

Eskatzeko planteatzen du, baina Murgako industrialdean txukunketa bat egin beharko litzateke, Foru Planaren arauekin bat egiten baitu.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) adierazi du udalak ez dituela oinarrizko azpiegiturak, Administrazio Batzarren titulartasunekoak direla. Kontziente izan behar gara udalak ez dauzkala gauza asko titulartasunean, eta hortaz, Foru Planak diru bidez lagun ditzakeen obrak bilatzea zaila dela. Proposatutako obrarentzat, Ereini diru-laguntza eskatu beharko litzaioke; Gizarte Zerbitzuei larrialdietarako solairuarentzako diru-laguntza eskatu beharko litzaioke eta posible den beste edozein diru-laguntza eskatu beharko litzateke.

Iraida andreak (AB) adierazi du bere taldeak batzordearen iritzia mantentzen duela. Esan du obra hori orain egitea ez dela komeni. Eta uste dute ezaugarri horiek dituen obra bat egiteko diru-laguntzak eskatzeko, obra gehiago aztertu eta landu beharko litzatekeela, eta bere erabilerak gehiago zehaztu. Horretan lan egin dezakegu eta hurren Foru Planean eskatu.

Halaber, aipatu du gizarte-larrialdietarako solairua ez dagoela ondo kokatuta. Ondorioz, eraikin hori birgaitzeko proposamena egiten denean, lekuz aldatzeko aukera aztertu beharko litzateke.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) jakinarazi du Foru Planeko teknikariek harremanetan egon direla, eta horiek esan dutela obrak diru-laguntzak jaso ditzakeela. Esan du ez duela ulertzen Foru Plan honetarako zergatik ez den egokia, eta hurrengorako bai; horrek ez dauka zentzurik. Espazio argiak egiteko intentzioa dago, udalbatzak nahi bezala modulatzeko; eta obra 2017rako planteatuta dago, beraz, proiektuan erabilerak zehazteko denbora nahikoa dago.

Iraida andreak (AB) esan du eraikin hori erabiltzen ari direla, eta bertan lan egiten duten pertsonak berriz kokatu beharko lirakeela...

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) esan du kuadrillarekin hitz egingo dutela, Aiaran geratu daitezkeen konbentzitzeko. Bestela, gainerako erabilerari garrantzia gehiago emango litzaieke, baina erabilerak xedatu eta zehazteko urte bat dago.

Iraida andreak (AB) esan du udaletxe zaharra birgaitzeko aukera dagoela, eta oinezkoentzako plaza bat egin daitekeela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du eraikin horrek patologia dituela, eta erabilerak ez lirakeela zehaztuta egongo. Gainera, babestutako eraikina da, eta horrek, kontu-hartzeak baldintzatuko ditu. Argi-hutsuneak txikiak dira, dorrea ere txikia da, eta aldaketa asko ezingo dira egin.

Iraida andreak (AB) esan du ulertzen duela aurkeztutako zenbakiak egiturari dagozkiola, eta ekipamenduaren kostua ez dela ezagutzen. Ondorioz, bukaerako kostua handiagoa izango da.

José Antonio jaunak (EAJ-PNV) esan du ezin dela onartu Foru Planari obra bat ez eskatzea. Gai hori lantzeko denbora gehiago izatea ondo egongo zela esanez jarraitu du, baina jadanik esan da erabilerak gainerako talde politikoekin eta herritarrekin zehaztu eta aztertzeke denbora dagoela oraindik. Obra hori ez eskatzeko arrazoia erabilerak zehaztu gabe daudela bada, zehazteko konpromisoa hartzen dutela esan du.

Iraida andreak (AB) esan du ez daukatela urtebete; hainbeste denbora ez daukatela. Izan ere, ebazten denetik, proiektuak bidaltzeko epeak daude. Halaber, adierazi du, Bildu Taldeak orain obra sustatzen ez duenez, beste obra bat lantzeko aukera gutxi daudela. Lehenengoago esan balute ados ez zeudela, beste aukera batzuk aztertu ahal izango lirake.

Josu jaunak (Bildu) esan du Bildu Taldeak iritziz aldatzeko eskubidea duela, obrak aztertu eta hausnartzeko denbora behar baita.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du hirugarren aukera bat proposatuko dutela, Foru Planaren aukera ez galtzeko. Esan du D. P.k Luiaondoko etxola birgaitzeko obraren proiektua idazteko esleipena duela, botikin bat egiteko. Partzela orokorrean aztertu eta gero, ikusi da hirigintzako zenbait gabezia daudela. Berarekin komentatu da, eta gutxi gorabehera 124.000,00 euroko ekonomia-memoria bat prestatu du horren inguruan. Eremu hori urbanizatzeko obran honakoak egin beharko lirake: transformazio-zentroa gerturatzea, ingurua berriz urbanizatu eta espaloi-eremua hobetzea.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) adierazi du obra hori Foru Planari eskatzea pentsatu dutela, aukera ez galtzeko. Hala ere, azken momentuko proposamena izan da, eta ezin izan da Foru Planeko teknikariek adostu obra horrek benetan diru-laguntzak jaso ditzakeen.

Josu jaunak (Bildu) komentatu du bere talde politikoa azken proposamen horrekin ados dagoela. Izan ere, aurreikusitako obra horrek birgaitzen ari den eraikinaren inguru osoa hobetzen du, eta kostua erabat zentzuzkoa da.

Gaiari buruz ez da ezer gehiago esan, eta beraz, ikastolako obrak Foru Planean sartzeko eta Luiaondoko 1333 zenbakidun partzelan zenbait egintza egiteko bozkatu dute.

Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

IKUSI DA.- 27/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena, Obra eta Zerbitzuen Foru Planak 2016-2017 aldirako Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeei laguntzak emateko deialdia onartzen duena.

IKUSI DA.- Obrak eta Zerbitzuak Informazio Batzordeak 2015eko uztailaren 14an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza osoak, aho batez, honako hau EBATZI DU:

Lehenengoa.- Eskatzea 2016-2017 Obra eta Zerbitzuen Foru Planean honako obra hauek gehitzeko:

- Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko obrak.
- Aiarako 3. industrialdeko katastroko 1333 zenbakidun partzelan erabilera publikoko ekintzak.

Bigarrena.- Udalak bere gain hartuko ditu obren finantzazio osoa eta dagozkion ordainsariak. Halaber, Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko Programa arautzen duen Araudian aurreikusitako baldintza guztiak beteko dira.

8.- Onestea, bidezkoa bada, “Jaima”-2015 Saharar Herriari Laguntza eta Lankidetzak eskaintzeko Elkartearekin egindako lankidetzak-hitzarmena.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

IKUSI DA.- Udalaren interesa saharar herria laguntzen duten familiekin eta elkarteekin lankidetzan egoteko.

IKUSI DA.- 2015. urteko udan Aiarako familia batek Saharako ume bat hartuko duela.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta “Jaima”- 2015 Saharar Herriari Laguntza eta Lankidetzak eskaintzeko Elkartearen arteko lankidetzak-hitzarmena.

IKUSI DA.- 2015eko uztailaren 14an Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak egindako aldeko irizpena.

ONARRIA.- Hitzarmen horrek arautu egiten du Aiarako Udalak “Jaima” 2015 Saharar Herriari Laguntza eta Lankidetzak eskaintzeko Elkarteari zuzenean emandako diru-

laguntza, eta udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa dago, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Udalbatzak, aho batez, honako ERABAKI hau hartu du:

Lehenengoa. Onestea Aiarako Udalaren eta "Jaima" 2015 Saharar Herriari Laguntza eta Lankidetzak eskaintzeko Elkartearen arteko lankidetzak-hitzarmena, zenbait ekimen eta jarduerak sustatzeko, bereziki "oporrak bakean" 2015eko programa.

Bigarrena.- Alkate-presidenteari ahalmena ematea, hitzarmena sinatu dezan.

Hirugarrena.- Hitzarmena sinatu eta gero, jakinaraztea "Jaima" 2015 Saharar Herriari Laguntza eta Lankidetzak eskaintzeko Elkarteari. Hitzarmenaren bi kopia bidaliko zaizkie erantsita, sinatzeko eta bi kopietako bat udalari bueltatzeko.

9.-Onestea, bidezkoa bada, errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzako Elkartearekin – 2015– egindako lankidetzak-hitzarmena.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

IKUSI DA.- Bikarte elkarteak zeregin humanitarioa sustatzeko eta laguntzeko duen interesa, eta egiten duen elkarlana eta garapen-lana.

IKUSI DA.- 2015. urteko udan Aiarako bi familiak Errusiako bi ume hartuko dituztela.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzako Elkartearen – 2015 arteko lankidetzak-hitzarmena.

IKUSI DA.- 2015eko uztailaren 14an Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak egindako aldeko irizpena.

OINARRIA.- Hitzarmen horrek arautu egiten du Aiarako Udalak errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzako Elkarteari –2015– zuzenean emandako diru-laguntza, eta udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa dago, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Udalbatzak, aho batez, honako ERABAKI hau hartu du:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzako Elkartearen - 2015 arteko lankidetzak-hitzarmena, zenbait iniziatiba eta jarduerak sustatzeko, bereziki 2015eko udan umeak hartzeko programa.

Bigarrena.- Alkate-presidenteari ahalmena ematea, hitzarmena sinatu dezan.

Hirugarrena.- Hitzarmena sinatu eta gero, jakinaraztea errusiar umeak hartzeko Bikarte Ongintzako Elkarteari –2015–. Hitzarmenaren bi kopia bidaliko zaizkie erantsita, sinatzeko eta bi kopietako bat udalari bueltatzeko.

Eguneko aztergaien zerrendako gainerako puntuekin jarraitu aurretik, alkate-udalburuak proposatu du honako puntu hau premiaz eguneko aztergaien zerrendatik kanpo sartzea:

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du obra duela denbora batetik geldituta dagoela. Obraren zuzendaritza eta enpresa eraikitzailea ez zeuden ados zenbait prezioen inguruan, eta akordiorik hartzen ez zenez, enpresa obraren erritmoa geldotzen hasi zen.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) esan du enpresa eraikitzailearekin zenbait bilera egin dituztela, eta akordiorik lortu ez denez, prezio kontrajarrien espedientea hasi zen. Udalak D. P.ri jakinarazi zion, hark erabakitzen zuena udalak onartuko zuela, eta horrela, aipatutako espedientea hasi zen. Enpresak erantzun zuen, eta orduan espedientea ahalik eta azkarren ebatzi behar zen, obrak ahal den erritmorik onenean jarraitzeko.

Gaia bilkurako eguneko aztergaien zerrendan sartzeko bozkatu da, eta aho batez onartu dute bertaratutakoek. Ondorioz, honako hau da puntua:

10.- Behin betiko onestea Luaiondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko obretan sortutako gorabeherak ebazteko prezio kontrajarriak, eta esleitzea PC-01 (hegala estalkian) obra-unitatea gauzatzeko obren kontratu txikia.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du Foru Planeko Zuzendaria izendatzen dutenean, berarekin bilduko direla eta gaia nola dagoen azalduko diotela, badaezpada, urte-bukaeran luzapena eskatu beharko bada.

Josu jaunak (BILDU) obrako zuzendariak, D. P.k, egindako lan positiboa babesten du; gogor egin du lan eta udalaren interesak ondo defendatu ditu.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) adierazi du obrak jasan duen atzerapenak denbora gutxian obran jende asko pilotzea ekarriko duela, eta D. P.k esan du ez dela obraren kalitatea alde batera utziko epeak betetzeko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horri jarraiki,

IKUSI DA.- Luaiondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko obretan sortu diren gorabeherak konpontzeko prezio kontrajarrien espedientea, eta neurketa-akatsak, eta -gehiegikeriak eta horien zenbaketa ezartzeko espedientea.

IKUSI DA.- Obrako zuzendariak uztailearen 14an egindako txostena, eta enpresa kontratatzaileak uztailearen 21ean aurkeztutako alegazio-idazkia.

OINARRIA.- Entzunaldi-epean, enpresa kontratatzaileak honako alegazioak egin ditu:

Obrako zuzendariaren uztailearen 14ko txostenean azaltzen diren prezio kontrajarrien zerrenda eta zenbaketa osoak onartzen dira, PC-01 ezik. Azken hori beste enpresari bati emango dio kontratazio-organoak, obrako zuzendariak finkatutako prezioan, eta ezingo zaio horri buruzko erreklamaziorik egin EBA SL enpresari.

PCIF 04 eta PC.ICG 04 instalazioen inguruan gaitzetsitako prezio kontrajarrien gaitzespena onartzen da; izan ere, obrako zuzendariak indarreko araudia beteko duelako bermea dugu, proiektuan aurreikusitako isolamendu-lodierekin.

Era berean, neurketa-akatsak, eta -gehiegikeriak onartzen dira, baita horren zenbaketa ere, obrako zuzendariaren uztailaren 14ko berrikuspen-txostenaren arabera. Argitu da, bestalde, aipatutako akatsen eta gehiegikerien zenbaketa gauzatze materialean dagoela eginda txostenean, eta, beraz, azken batean bukaerako emaitzak bat egin behar du egiten diren neurketa errealekin.

Aurreko astean berriz hasi ziren lanak, eta behar bezala egiaztatutako kausa salbu, EBA SL enpresak obrak gauzatzeko kontratuko epea mantentzen du, hamabi hilabete, 2014ko abenduaren 9an obrak hasi zirenetik zenbatzen hasita.

GERTAKARIAK- Aldaketak obra-unitateak ezabatzea edo murriztea badakar, kontratugileak ez du eskubiderik izango kalte-ordainik eskatzeko.

Aldaketek proiektuan aurreikusi gabeko obra-unitateak sartzea eragiten badute edo horien ezaugarriak guztiz bestelakoak badira, horiei aplikatu ahal zaizkien prezioak administrazioak ezarriko ditu, kontratatzaileari gutxienez hiru egun balioduneko epean entzunaldia eskaini eta gero. Horrek ezarritako prezioak onartzen ez baditu, kontratazio-organoak beste enpresari batekin kontratatu ahal izango ditu aurrez finkatu zituen prezioetan, edo zuzenean gauzatu.

GERTAKARIAK.- Gauzatutako obrak edo egiteko daudenak proiektuko aurrekontu-partidetan jasotako neurketa-gehiegikeriak edo antzeko ezaugarriak dituzten obrak eragiten badituzte, eta ez badute proiektuan aurreikusi ez den obra-unitaterik eragiten, proiektuko aurrekontutik eta egiten diren neurketa errealetatik hasita abonatu dira.

OINARRIA.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 210., 211., 219., 234.1. eta 234.2. artikuluek xedatutakoa.

Herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 97. artikulua eta hurrengoek, eta 147. artikulua eta hurrengoek ezarritakoa.

Udalbatzak 2015eko uztailaren 23an eginiko bilkuran, GEHIENGO OSOZ, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea prezio kontrajarriak Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinaren zaharberitze-lanek ekarritako gorabeherak konpontzeko, 2015eko uztailaren 14ko obra-zuzendariaren txostenaren arabera,

Onartu egiten dira obra-zuzendariak obra zibilagatik eta instalazioengatik txostenean onartu dituen prezio kontrajarriak, eta txostenean gutxiesten diren lan zibiletarako eta instalazioetarako eskatutako kopuruak ordaintzeko eskaera ukatzen da, proiekturen aurrekontuan aurreikusten direlako edo beharrezkoak ez direlako.

Halaber, obra-zuzendariak onetsitako aldaketak onartzen dira, proiektuaren aurrekontuan aurreikusita ez zeuden lan-unitateak sartzei dagozkionak, uztailaren 14ko

txostenean zehaztutako prezio aplikagarriak finkatuz. Kontratatistak onartu ditu prezio horiek, entzunaldian, PC-01 izan ezik. PC-01 lana hirugarren bati esleitzea adostu da, kontratatistak onartu ez duena eta obra-zuzendariak finkatutako prezioa gainditu gabe.

Obra-zuzendariak arrazoitutako prezio kontrajarriak onartzen dira, halaber, premiaz gauzatutako lanei dagozkienak –eguraldia edo ustekabeko kausak tarteko– eta obrazuzendariak baimendutakoak prezioak egiaztatu gabe, eta obra-zuzendariak bere txostenean ezarritako prezio kontrajarriak onartzen dira, oraindik egin gabeko ekintzei dagozkienak, baina beharrezkoak direnak eta txosten teknikoan adierazten den bezala, proiektuaren aurrekontutik hasita ordainduko direnak, eta frogatzen diren neurketa errealak.

Bigarrena.- J. M. O. S. jaunari esleitzea –langile autonomoa, * zenbakidun NANA duena– PC-01 lan-unitatea, proiektuaren aurrekontuan aurreikusi gabekoa: teilatuko hegalaren soluzioa (60,40 ml-ko sandwich panelezko estaldura Iparralde-Hegoalde-Ekialde-Mendebaldeko harrizko aurrealdearen eta egurrezko aurrealdearen artean, hegaleko frisoa, proiektuaren dokumentazio grafikoaren arabera (D7.Rv01 plano) eta zuzendaritza profesionalak emandako xehetasunekin. Horrela, lan egiteko eremuak eraikitzeke baldintzak biltzen baditu, zuzendaritza profesionalen irizpideen arabera, lanak 2015eko irailaren 7an hasiko dira.

Hirugarrena.- Behin betiko onartzea neurketaren akatsak eta gehiegikeriak zehazteko espedientea eta bere kopurua zehaztea uztailearen 14an obra-zuzendariak egindako txostenaren arabera, neurketaren akats eta gehiegikerien berrikusteei buruzkoa. _ Kuantifikazio ekonomikoa partida bakoitzak proiektuaren aurrekontuan duen kontratuaren balioa izango da eta horri lizitazioaren beherapena aplikatuko zaio, segurtasunaren eta osasunaren kapitulua izan ezik, eta bukaerako emaitza egingo diren neurketa errealekin bat etorriko da besterik ezean.

Laugarrena.- _EBA SL enpresari eskatzea obrarekin jarraitzeko, esandako epea errespetatuz eta arduraz egitea, eta PC-01 obra-unitateari egokitzea frogatu gabeko etenaldirik gabe, hirugarren bati esleitutakoa.

Bosgarrena.- Erabaki hau EBA SLri jakinaraztea. Erabaki honen lehen puntuaren aurka Udal honen aurrean eta hilabeteko epean aukerako berraztertzeke errekurtsora jar dezakeela jakinaraztea, edo zuzenean administrazioarekiko auzibide-errekurtsora jo dezakeela Gasteizkeko Administrazio Auzibideetarako Epaitegiaren aurrean bi hilabeteko epean.

Seigarrena.- Halaber, J. M. O. S. jaunari akordio honen berri ematea eta jakinaraztea hamar laneguneko epean, berri eman zaionetik, Udalean aurkeztu beharko dituela Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak eta, erabakiaren aurka Udal honen aurrean eta hilabeteko epean aukerako berraztertzeke errekurtsora jar dezakeela, edo zuzenean administrazioarekiko auzibide-errekurtsora jo Gasteizkeko Administrazio Auzibideetarako Epaitegiaren aurrean bi hilabeteko epean.

Jarraitu baino lehen, Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du, Bilkurarekin jarraitu aurretik, Zaroabe Institutuko Guraso Elkarteak mozio bat aurkeztu duela, eskola-garraioari buruzkoa, baina iraileko osoko bilkuran landuko dela.

Halaber, esan du, goiz berean Bildu Udal Taldeak Herriko Tabernei buruzko mozio bat aurkeztu duela, baina beraiek, talde bezala aztertzeke denborarik izan ez dutela eta eztabaida eta bozketa hurrengo bilkuran lantzea proposatu du. Talde batek mozio bat aurkeztu nahi duenean, ahal den neurrian, behar besteko aurrerapenarekin egiteke eskatu du, aztertu eta eztabaidatu ahal izateke.

Josu jaunak (BILDU) esan du mozioa hurrengo bilkuran eztabaidatu arren, irakurri daitekeela.

Josu jaunak (BILDU) mozio hau irakurri du:

AUZITEGI GORENAK 35/02 HERRIKO TABERNEN AUZIAREN INGURUAN HARTU DUEN ERABAKIAREN AURREAN, AIARAKO UDALBATZAK HONAKO ADIERAZPEN HAU EGIN NAHI DU:

Bizitzen ari garen oso itxaropentsu diren une giza-politiko berri hauetan, instituzioek eta erakundeek, euskal gizarteak bere osotasunean aho betez nabarmendu dute orain salatzen dugun honelako makro epaiketaren antzeko prozesuek ez dutela inolako lekurik, iraganeko argazkiak direla.

Duela hamabi urte eta "Dena da ETA" teoria eta partiduen legearen aitzakipean 35/02 epaiketa ireki zen eta honen eskutik, egunkariaren itxierak, taldea politikoen ilegalizazioak eta hainbat pertsonen atxilotetak etorri ziren. Eskubide zibil eta politikoen urraketa nabari honek, bai nazio zein nazioarteko mailan mota ezberdinetako hainbat erakunde zein banakoen kontrako mespretxu argia adierazi du.

Egunotan, oraintsu emandako epaiaren bitartez, 104 herriko tabernen itxiera eta hauen ondasunen konfiskazioa gauzatu da, besteak beste, Txoko Gorri Amurriokoa; neurri berdinen ondorioz ere hainbat pertsonen atxiloteta etorri da politika egiteagatik soilik.

Hori guztia dela eta, Aiarako EH Bilduk honako hau aldarrikatu nahi du:

-Bizitzen ari garen egorek gure herriaren eskubide zibil eta politikoen defentsan atzerapausuak ematea suposatzen duela.

-Eta hori horrela, AIARAKO Udaleko zinegotziek gure elkartasuna adierazu nahi diegu kaltetuak suertatu diren taberna eta elkarteetako bazkide eta langileei. Amurriko Txokogorri lokala itxi nahi dute, toki fisiko, kultural, politiko eta Amurriorentzat erreferentziazkoa. Topagune librea eta herritarrok sortutakoa da likidatu nahi dutena.

-Sendo salatu nahi dugun egun hauetan bizitzen ari garen moduko prozesuak ez datozela bat, inoiz, baina are gutxiago gaur egun, Euskal Herria bizitzen ari den egoera politikoarekin, alegia, gure herrian bidezkoa eta iraunkorra izango den pakera oinarriak gogortzen hasi den uneetan. AIARAKO Udaletik mota honetako jokabideak ezabatzeko lan egingo dugula, eskura ditugun baliabide guztiekin, hitz ematen dugu.

AIARAKO Udalak, Aiarako herritar guztien ordezkaria den heinean, adierazpen honen berri Auzitegi Gorenari eta Espainiako Gobernuari bideratuko dio.

-Halaber, adierazpen honen berri emango zaio AIARAKO herriari.

11.- Alkatetza dekretuak:

- **186/15 erref.- Lujoko Administrazio Batzarra.-** Jasokundearen Elizaren barrualdea egokitzeko lanen lizentzia ematea.
- **187/15 erref.- Construcciones Izoria 2000, SA-** Luiaondoko Padura kaleko 41, 43 eta 45 zenbakietako eraikinen konponketa-lanak egiteko lizentzia emateko dokumentuak eskatzea.
- **188/15 erref.- P. y E., S.C.-** Abeltzaintza-ekintzetarako lizentziak lortzeko neurri zuzentzaileen aurkezpena eskatuta.
- **189/15 erref.- D. P.-** “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikineko saileko etxola zaharberritzea farmaziako sendagaien kontsultategi gisa jartzeko” proiektuaren esleipena.
- **190/15 erref.-** Diru-laguntza eskatzea Arabako Foru Aldundiari, 2015eko San Isidroko azoka antolatzeagatik.
- **191/15 erref.- G. O., S.C.-** Arespalditzako abeltzaintza-pabiloia handitzeko obra-lizentzia bideratzeko jarduera-proiektuaren aurkezpena eskatzea.
- **192/15 erref.- J.IM.I.-** Menoioko etxolaren teilatua konpontzeko obra-lizentzia ematea.
- **193/15 erref.- U.M.A.-** Bermea eskatzea, Luiaondoko sail bateko etxebizitzan eraikuntzatik eratorritako hondakinen kudeaketa egokirako.
- **194/15 erref.- G. F. ahizpak.-** Arespalditza herrian eraikitako etxebizitza lehenengoz erabiltzeko lizentzia ematea.
- **195/15 erref.- D. P.-** Aiarako 3 zenbakiko poligonoan dagoen 1333 saileko “Nekazaritza-txabola botatzea” proiektuaren esleipena.
- **196/15 erref.- AKKI-TEK DISEÑO Y APLICACIONES CONSTRUCTIVAS, SL-** “Kirol-zelaiak ixtea” proiektuaren esleipena”.
- **197/15 erref.- Construcciones Izoria.-** Etxaurren Ikastolako bainugelen eraberritze-lanen kontratu txikiaren esleipena.
- **198/15 erref.- V.U.C.-** Llantenen lehenengoz erabiltzeko lizentzia ematea, eraikuntza osagarria eraikitzeko.
- **199/15 erref.- J.U.V.-** Arespalditza herrian eraikitako etxebizitza lehenengoz erabiltzeko lizentziak emateko dokumentuak eskatzea.
- **200/15 erref.- S.L.U.-** Arespalditza herrian eraikitako etxebizitza lehenengoz erabiltzeko lizentzia emateko dokumentuak eskatzea.
- **201/15 erref.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.-** Bermea eskatzea, baserriei argiteria publikoa emateko lanetatik eratorritako hondakinak kudeatzeko.
- **202/15 erref.-** Alkatearen eskuduntzak eskuordetzea.
- **203/15 erref.- Bitarteko funtzionarioa izendatzea, gaixotasunagatiko ordezkapena egiteko.**
- **204/15 erref.-** Administrari laguntzailea izendatzea, barne-sustapenerako.
- **205/15 erref.- AMA BIRJINA ZURIA elkarte.-** 2014ko kultur jardueretarako diru-laguntzak justifikatzeko eskaera.
- **206/15 erref.- Club Bolatoki de Luiaondo.-** 2014ko kultur jardueretarako diru-laguntzak justifikatzeko eskatzea.
- **207/15 erref.- F.C.B.-** Retes de Llantenenoko nekazaritza-biltokiaren lehenengoz erabiltzeko lizentzia ematea.
- **208/15 erref.- LARRABE, S.C.-** Agiñagan ukuilu-lastategiaren teilatua zaharberritzeko obraren lehenengoz erabiltzeko lizentzia.
- **209/15 erref.- Onestea F/2015/5 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**

- **210/15 erref.- G.M.DJ.-** Dokumentuak eskatzea, Luiaondoko baserri bat zaharberritzeko obraren lehenengoz erabiltzeko lizentziarako dokumentazioa eskatzea.
- **211/15 erref.- I.LL.B.-** Salmantonen 7 zenbakiko poligonoko 623 sailean eraikitzeko gutxieneko segurtasun-obren espedientea.
- **212/15 erref.- L eta B.T.M.-** Salmantonen 5 zenbakiko poligonoko 1730. sailean eraikitzeko gutxieneko segurtasun-obren espedientea.
- **213/15 erref.- Orixe Comercial, SL-** Zuazako lur-zati bateko segregazio-lizentzia ematea.
- **214/15 erref.- J.J.P.L. eta M.B.A.-** Izoriako nekazaritzako eta abeltzaintzako biltegi bat lehenengoz erabiltzeko lizentzia ematea.
- **215/15 erref.- Retes de Llanteno Administrazio Batzarra.-** Hobi septikoa abian jartzeko lizentzia ematea.
- **216/15 erref.- R.A. Menoioko San Pedro Ad Vincula parrokiako e/r.-** Menoioko "Etxaurren ermita zaharberritzea" obraren okupazio lizentzia ematea.
- **217/15 erref.- A.J.E.B.-** Llanteno etxola baten estalkia konpontzeko obrako hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea.
- **218/15 erref.- A.RDL.C.-** Sojoko abeltzaintza-nabe bat handitzeko jardueralizentzia ematea.
- **219/15 erref.- ERAGINTZA KULTUR ERAKUNDEA.-** Euskal Jolas Txokoak abala itzultzea.
- **220/15 erref.- A4 ARQUITECTOS, ESTUDIOS DE ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP-** Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeko obregatikoko fidantza itzultzea.
- **221/15 erref.- J.L.A.G.-** Llanteno Garabilla auzoko eraikin baten hondamen-espediente hastea.
- **222/15 erref.-** Alkatearen 1/2015 kreditu gehigarriaren espedientea.
- **223/15 erref.- LARRABE, S.C.** 160/15 Dekretua aldatzea, Agiñagan errepidea asfaltatzeko obren legeztapena emateari buruzkoa.
- **224/15 erref.- Madariako Administrazio Batzarra.-** Madariako hilerria handitzeko obra amaitzeko lizentzia.
- **225/15 erref.- REMAI, SA-** Zehapen-espedientearen ebazpena, zabaldegia eraikitzeari buruzkoa.
- **226/15 erref.- MD.M.Y.-** Zuazan behi-haragirako abeltzaintza instalazioak handitzeko obrak amaitzeko lizentzia.
- **227/15 erref.- S.B.Z. eta J.S.O.-** Menagarain lehenengo aldiz erabiltzeko etxebizitzaren lizentzia.
- **228/15 erref.-** Izoriako Administrazio Batzarra- Dokumentuak eskatzea, Gizarte Zentrorako jardueralizentzia izapidetzeko.
- **229/15 erref.- AGM.-** Irekitzeko jardueralizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **230/15 erref.- JLDC.-** Eskatu zaio jardueralizentziaren espedienteari dagokion dokumentazioa zabaltzeko.
- **231/15 erref.- J.A.G.U.-** Beotegiko sailean eraikitako etxebizitzarako lehenengoz erabiltzeko behin-behineko lizentzia emateko dekretua aldatzea.
- **232/15 erref.- MTSG.- Obrarako udal-lizentzia ematea, Llanteno eraikuntza baten estalkia eta fatxada zaharberritzeko.**
- **233/15 erref.-R. M^a M. I.-** Dokumentazio gehiago eskatzea.
- **234/15 erref.- MJ.O.L. eta J.B.Y.-** Fidantza eskatzea, Izorian etxebizitza bat egokitze lanen ondoriozko hondakinak kudeatzeko.

- **235/15 erref.- Construcciones Izoria 2000, SA-** Luiaondoko padura kaleko jardueretarako obrak egiteko udal-lizentzia ematea.
- **236/15erref.- Orixe Comercial, SL-**Zuazan bi bizitzako etxebizitzak eraikitzeo obrak hasteko lizentzia eskuratzeko dokumentuak eskatzea.
- **237/15 erref.- I.L.O.-**Zuazan bere jabetzako lur-zatian hobi septikoa eta kanalizazioak aldatzeko obren lizentzia ematea.
- **238/15 erref.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.-** Luiaondon ibilbideko lubakiak asfaltatzeko obren lizentzia ematea.
- **239/15 erref.- Madariako Administrazio Batzarra.-** Madariako hilerriko sarbidea konpontzeko obren lizentzia ematea.
- **240/15 erref.- E.G.G.-** Beotegin trasteleku bat eraikitzeo obren lizentziaren luzapena ematea.
- **241/15 erref.- A.SM.C.-** Quejanan lorategi-eremu bateko konponketa-obrak egiteko lizentzia ematea.
- **242/15 erref.-CM.L.O.-** Obrarako lizentzia ematea, Llantenon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **243/15 erref.- L.A.M.-** Obrarako lizentzia ematea, Luiaondon bere jabetzako lur-zatibateko horma konpontzeko.
- **244/15 erref.- T.V.O.-** Arespalditzan horma bat konpontzeko obra egiteko lizentzia ematea.
- **245/15 erref.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.-** Arespalditzan abiadura murrizteko bandak konpontzeko obretarako lizentzia ematea.
- **246/15 erref.- I.M.DF.-** Luiaondoko etxebizitza bateko terrazan egurrezko itxitura bat jartzeko lizentzia ematea.
- **247/15 erref.- E.N.V.-** Menagai-Beotegiko Caminoko eraikin bateko teilatua konpontzeko obrarako lizentzia ematea.
- **248/15 erref.- MJ.O.L. eta J.B.Y.-** Izoriako etxebizitza bat zaharberritzeko obren lizentzia ematea.
- **249/15 erref.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.-** Auzoetako seinale-kartelak jartzeko eta edukiontziak ixteko obren lizentzia ematea.
- **250/15 erref.- Agiñagako Administrazio Batzarra.-** Agiñagako bideak garbitzeko eta sasiak kentzeko lizentzia ematea.
- **251/15 erref.- Agiñagako Administrazio Batzarra.-** Jasokundearen Elizaren barrualdea egokitzeko lanen lizentzia ematea.
- **252/14 erref.- MAAG.-** Hobaria ematea Hiriko OHZn (2015), ordenantza fiskalean ezarritako baldintzak betetzen direlako.
- **253/14 erref.- MI.H.M.-** Hobaria ematea Hiriko OHZn (2015), ordenantza fiskalean ezarritako baldintzak betetzen direlako.
- **254/15 erref.- EMH eta MCGB.-** Hobaria ematea Hiriko OHZn (2015), ordenantza fiskalean ezarritako baldintzak betetzen direlako.
- **255/15 erref.- SISTEMAS DE OFICINAS DE VIZCAYA-2, SA-** Horniduretarako eta fotokopiagailu bat jartzeko kontratu txikia.
- **256/15 erref.- U.M.A.** Lizentzia ematea, Luiaondoko eraikin bat botatzeko.
- **257/15 erref.- U.M.A.-** Obra-lizentzia ematea, Luiaondon lur-zati bat bereizteko eta etxebizitza bat eraikitzeo.
- **258/15 erref.- Alkatetzak 3/2015 kredituak gaitzeko espedientea**
- **259/15 erref.- A.M.C. eta San Juan de Dios Ospitale Ordena.-** Hasitako zaharberritzearen ebazpen-espedienteari buruzko dokumentazioa eskatzea.
- **260/15 erref.- Lujoko Administrazio Batzarra.-** Lujoko Eliza egokitzeko lanen lizentzia emateko dekretua aldatzea.

- **261/15 erref.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.-** Arespalditzako 5 zenbakiko poligonoko 74. lur-zatiko ekintzetarako obren lizentzia luzatzea.
- **262/15 erref.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.-** Hilerriaren ingurua egokitzeko obren lizentzia ematea.
- **263/15 erref.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Elizaren ingurua egokitzeko lanen lizentzia ematea.
- **264/15 erref.- Izoriako Administrazio Batza.-** Lizentzia ematea ur-biltegi sartzeko bidea konponzeko obrak gauzatzeko.
- **265/15 erref.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.-** Baserri argiteria publikoa emateko lanetarako lizentzia ematea. <0}
- **266/15 erref.- AIARA INFORMÁTICA Y COMUNICACIONES S. KOOP.- I. P. V. .** Aiarako Udaleko Ekipo eta sistema informatikoaren kudeaketa, mantenua eta konponketarako laguntza teknikorako zerbitzuaren kontratua amaitzea.
- **267/15 erref.- J.G.R., A.M^a. S.P eta G.M.S.P eta M.B.G.R.ren anaiak.** Luiaondoko La Magdalena kaleko 14 zenbakiko eraikinean obrak egiteko eskatzea.
- **268/15 erref.- AGM.-** Irekitzeko jarduera-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **269/15 erref.- A.RDL.C.** Fidantza eskatzea, Sojoko abeltzaintza-nabea handitzeko obren ondoriozko hondakinak kudeatzeko.
- **270/15 erref.-** Bertaratzea Etxegoienerako J.A.k 131/15 Alkatetza Dekretuaren aurka jarritako ohiko helegitean.
- **271/15 erref.- Costerako Administrazio Batzarra.-** Harri-lubeta eraikitzeke obra amaitzeko lizentzia ematea.
- **272/15 erref.- JA.G.U.-** Behin betiko lizentzia ematea, Beotegiko etxebizitza lehenengoz erabiltzeko.
- **273/15.- Alkateordeak izendatzea erref.-** Legalki aurreikusitako egoeretan, Alkatetza ordezkatzeko alkateordeak izendatzea.
- **274/15 erref.- E.A.G. % 25eko** hobaria ematea 2015eko TMZn, kide anitzeko familiako kide izateagatik.
- **e275/15 erref.- JM.M.V.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **276/15 erref.- F.M.H.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **277/15 erref.- JA.E.R.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **278/15 erref.- F.G.R.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **279/15 erref.- J.G.P.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **280/15 erref.-A.I.A.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **281/15 erref.- JA.I.A. % 25eko** hobaria ematea 2015eko TMZn, kide anitzeko familiako kide izateagatik.
- **282/15 erref.- JS.S.I.** Ibilgailuen gaineko udal-zergaren salbuespena ematea, minusbaliotasun maila bat egiaztatzeagatik.
- **283/13 erref.- N.C.P. eta I.F.C.** Biztanleen udal-errolan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **284/15 erref.- A.T.** Biztanleen udal-errolan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.

- **285/15 erref.- A.B.** Biztanleen udal-erroldan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **286/15 erref.- Aiarako Suhiltzaileen Partzuergoko (SPEI) Zuzendaritz Batzordeko udal-ordezkaria izendatzea.** Gentza Alamillo Udaeta izendatzea eta, ordezeko gisa, I. P. V. jauna.
- **287/15 erref.- Zabaiako Landa Garapeneko Elkarteko udal-ordezkaria izendatzea.** Gentza Alamillo Udaeta izendatzea eta, ordezeko gisa, Jose Antonio Bartolome Pesquera jauna.
- **288/15 erref.- Zaraobe Institutuko, Etxaurren Ikastolako eta Etxaurren Haurreskolako Eskola Kontseiluetan udal-ordezkariak izendatzea.** Gentza Alamillo Udaeta izendatzea eta, ordezeko gisa, Montserrat Angulo Sollo andrea.
- **289/15 erref.- "Kantauriko Urkidetza" Ur Partzuergoan udal-ordezkariak izendatzea.** Batzar Nagusian eta Gobernu Kontseiluan Gentza Alamillo Udaeta izendatzea eta, ordezeko gisa, Jose Antonio Bartolome Pesquera jauna.
- **290/15 erref.- Olabezarko Administrazio Batzarra.-** Olabezarko eurien kanalizazioa hobetzeko obraren lizentzia ematea.
- **291/12 erref.-** Alkateak bere eskuduntzak eskuordetzea, ezkontza zibila egiteko.
- **292/15 erref.- Quejanako Administrazio Batzarra.-** Quejanako baserri bateko sarbidea hobetzeko obraren lizentzia ematea.
- **293/15 erref.-Luiaondoko Administrazio Batzarra.-** Luiaondoko frontoiko alde bat ixteko obraren lizentzia ematea.
- **294/15 erref.- F.A.O.-** Etxegoieneko bide bateko hondakinak kentzeko obraren lizentzia ematea.
- **295/15 erref.- MURGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA.** Gastuak zuritzea 2014ko kultura-, kirol- eta gizarte-eremuko diru-laguntzetarako.
- **296/15 erref.- DORREKO ESKU PILOTA TALDEA.** Gastuak zuritzea 2014ko kultura-, kirol- eta gizarte-eremuko diru-laguntzetarako.
- **297/15 erref.- AIARAKO BILTOKI KULTURA ELKARTEA.** Gastuak zuritzea 2014ko kultura-, kirol- eta gizarte-eremuko diru-laguntzetarako.
- **298/15 erref.- MENGARAIIKO EMAKUME TALDEA.** Gastuak zuritzea 2014ko kultura-, kirol- eta gizarte-eremuko diru-laguntzetarako.
- **299/15 erref.- IBAIZABAL GAZTETXEA.** Gastuak zuritzea 2014ko kultura-, kirol- eta gizarte-eremuko diru-laguntzetarako.
- **300/15 erref.- AIARAKO BOLATOKI TALDEA.** Gastuak zuritzea 2014ko kultura-, kirol- eta gizarte-eremuko diru-laguntzetarako.
- **301/15 erref.- A.G.M.- Antojo jatetxea.-** Arespalditzako Sagasti auzoko 3 zenbakiko eraikina erabiltzeko lizentzia ematea.
- **302/15 erref.- Naturgas Energia Distribución, SAU-** Fidantza eskatzea, Amurrio-Aiaran gasaren eroapena birlotzearen ondoriozko hondakinaren kudeaketa egokirako.
- **303/13 erref.- Onestea F/2015/6 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 303/15. Hierros y Contenedores Zorraza, S.L.-** Murgako poligonoko edukiontziak kentzeko eskaera.
- **305/15 erref.- E.C.B.-** Murgako poligonoko eraikuntza, itxitura eta animaliak lur publikoetatik kentzeko eskaera.
- **306/15 erref.- A.RDL.C.-** Sojoko bazka-biltegi bat eraikitzeko obra-lizentzia ematea.
- **307/15 erref.- Naturgas Energía Distribución SAU.-** Likidatzea lurzorua okupatzeagatik tasa (2. lauhilekoa).
- **308/15 erref.- IZALDE ABESBATZA.-** Diru-laguntza zuritzeko eskaera.
- **309/15 erref.- J.B.S.-** Murgako eraikinen banaketa horizontalaren lizentzia ematea.

- **310/15 erref.- H.M.S.-** Luiaondoko lur-zati batean zolarri bat eraikitzeke obra-lizentzia emateko dokumentuak eskatzea.
- **311/15 erref.- I.L.B.-** Izoriako baserri bat zaharbertitzeko obren lizentzia emateko dokumentuak eskatzea.
- **312/15 erref.- A.V.D.** Zuazan bazka eta tresnak gordetzeko biltegia legalizatzeko jarduera-espeditentea izapidetzen jarraitzearen aldeko txostena.
- **313/15 erref.- JM.U.L.-** Izoriako lur-zati batean txilarrezko itxitura bat egiteagatik hiri-egitura berrezartzeko ebazpenaren espeditentea.
- **314/15 erref.- F.R.R.** Dokumentuak eskatzea, Menagarain etxebizitza bat eraikitzeke obrak hasteko lizentzia emateko.
- **315/15 erref.- F.C.M.** Fidantza eskatzea, Quejanan etxebizitza bat eraikitzen hasteko obraren ondoriozko hondakinak kudeatzeko.
- **316/15 erref.- ECOTHERMIA VELEZ INSTALACIONES, SL-** Dokumentuak eskatzea, Zuazako propano-depositua jartzeko jarduera sailkatuaren alde aurreko jakinarazpena izapidetzeko.
- **317/15 erref.-** Aldeko txostena, Milagros Vadillo Etxebarriak eskatutako jarduera-espeditentea izapidetzen jarraitzeko, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailera bidaltzea, txostena igortzeko.
- **318/15 erref.- Murgako Administrazio Batzarra.-** Gizarte Zentroko ingurua egokitzeko obrak egiteko lizentzia ematea.
- **319/15 erref.-** Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren aurrerapena aurkezteko epea luzatzea.
- **320/15 erref.- ADMINISTRAZIO BATZARRAK.** 2014ko argiteria publikorako diru-laguntza.
- **321/15 erref.- LUIAONDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA.** 2014ko argiteria publikorako diru-laguntza.
- **322/15 erref.- JM^a e/r ALDAMOLI, S.C.-** Fidantza eskatzea, Murgan abeltzaintza-jarduerarako biltegi-tunela eraikitzeke obren ondoriozko hondakinak kudeatzeko.
- **323/15 erref.- ALKATEAREN ESKUDUNTZAK ESKUORDETZEA.** Alkateordearen alde uztea, oporrak direla-eta, alkate-presidentearen funtzioak.
- **324/15 erref.- CONSTRUCCIONES IZORIA 2000, SA ENPRESARI ESLEITZEA OBRA TXIKIA.-** Izoria Construcciones enpresari esleitzea "Etxaurren Ikastolako bainugelak konpontzea" obra txikiko kontratua.
- **325/15 erref.- J.A.A. ALDAMOLI, S.C.** Lizentzia ematea, Murgan biltzeko tunel bat eraikitzeke obrarako.
- **326/15 erref.- A.I.G.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llantenon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **327/15 erref.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Udal-lizentzia ematea eta alde aurreko jakinarazpena, gizarte-zentroa egokitzeko jarduerarako.
- **328/15 erref.- Zuazako Administrazio Batzarra.-** Udal-lizentzia ematea, Zuazako kontzeju-etxeko tximinia berritzeko obrak egiteko.
- **329/15 erref.- ALKATEAREN 2/2015 KREDITU GEHIGARRIAREN ESPEDIENTEA.**
- **330/15 erref.- F.C.M.-** Lizentzia ematea, Quejanako etxebizitza bat eraikitzen hasteko.
- **331/15 erref.- Naturgas Energía Distribución, SAU-** Lizentzia ematea, Aiara-Amurrión gas naturala jartzeko birlotze-obrarako.

- **332/15 erref.- M^a P.A.G.-** Gutxienerako segurtasun-neurriak eskatzea, eta Llantenoko Garabilla auzoko eraikin bateko zati bat botatzeko, aurrealdea berritzeko eta hormak indartzeko lizentzia ematea.
- **333/15 erref.- NATURGAS ENERGIA COMERCIALIZADORA, SAU.- Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 2. hiruhilekoa). Kontzeptua: gasa.** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 2. hiruhilekoa). Kontzeptua: gasa.
- **334/15 erref.- NATURGAS ENERGIA COMERCIALIZADORA, SAU.- Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 2. hiruhilekoa). Kontzeptua: elektrizitatea.** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 2. hiruhilekoa). Kontzeptua: elektrizitatea.
- **335/15 erref.- AXPO IBERIA, SL.- Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 2. hiruhilekoa).** Likidatzea lurzorua okupatzeagatiko tasa (2015eko 2. hiruhilekoa).
- **336/15 erref.- J.J.Z.V.-** Gaitzestea Murgako lur-zati batean trabesak jartzea legez kanpoko obratzat hartzeko adierazpenari buruzko Dekretuaren aurkako helegitea.
- **337/15 erref.- ERAIKUNTZA, BIRGAIKUNTZA, ARTAPENA.-** Prezio kontrajarrien espedientea irekitzea, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikineko obran.
- **338/15 erref.- REMAIS, SA-** Udal-lizentziarik gabeko zabaldegi bat eraikitzeo obrak egiteagatiko espediente zigortzailea ebazten duen Dekretuaren aurkako helegitea gaitzestea.

- Esteban jaunak (BILDU) 249/15 Dekretuari buruz galdetu du. Zein seinale jarri behar diren jakin nahi du. Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio Ivanekin hitz egingo duela gaia azaldu diezaion.

- Iraida andreak (AB) 220/15 Dekretuaren inguruko azalpen bat eskatu du. Idazkariak azaldu du enpresak abala itzultzeko eskatu duela eta Udalak beraien aurkako espedienterik hasi ez duenez, proiektua gaizki idazteagatik, juridikoki ezin zaiela abala atxiki.

- Iraida andreak (AB) 196/15 Dekretuaren inguruan galdetu du. Zerbitzu hori Alkatetza Dekretu baten bitartez esleitu dela esan du eta horren berri ez dutela. Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du arkitekto-laguntzailearekin hitz egin dutela, aurreproiektu bat aurkeztu dezan Foru Planean aurkezteko helburuarekin. Laburki azaldu du aurreproiektua, konponbidea berriz aurkitzeko gai gaitzikor bat den arren. Iraida andreak (AB) esan du esleipena alde batera utzi beharko litzatekeela eta ideia lehiaketa bitartez egin. Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du gaia lasaiago landuko dela Batzorderen batean.

- Iraida andreak (AB), 324/15 Dekretuari dagokionez, jakin nahi du obra txikia zergatik esleitu den berriz. Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du obra esleitu zela, baina geroago, Hezkuntza Sailak plan bat bidali zuela eta bertan, aldaketa batzuk zeudela Ikastolak planteatutakoekin batera eta horiek proiektua eta aurrekontua pixka bat aldatzea ekarri duela, hortaz, berriz esleitu behar izan dela.

11.- Galderak eta eskaerak.

- Gentza jaunak (EAJ-PNV) zinegotziei jakinarazi die helbide elektroniko batzuk sortu direla guztientzat eta mantendu nahi duten ala ez esan behar dutela, bestela ezabatu egingo direla.

- Josu jaunak (BILDU) esan du aspaldi esan zuela, baina tokiaren berrantolaketaren kontua jada onetsi zela eta bazuela finantzaketa. Zer egin behar den jakin nahi du.

Gentza jaunak (BILDU) esan du oraindik ez dela ezer egin horri buruz. Proposamena aztertu nahi du eta lan-prozedurak ikusi, duten ideiarekin bat datozen ala ez ikusteko.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du obra hori onetsi zela eta langileekin adostu ere.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ez dutela egiteko asmorik, langileekin hitz egingo dutela eta ikusiko dutela zer egin.

- Josu jaunak (BILDU) galdetu du ea arkitektoaren eta udaleko zinegotziaren arteko gatazkarekin zerbait aurreratu al den. Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du asteartean arkitektoarekin bilera bat egingo dutela bere bertsioa entzuteko eta hurrengo egunerako tartean zeudenekin geratu direla, egoera hau konpondu ahal izateko.

Josu jaunak (BILDU) galdetu du nortzuk diren tartean dauden pertsonak eta Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Alvaro eta Iraidia direla. Saiatuko dira euren artean gaia konpontzen.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du agian jende gehiago zegoela tartean eta baita kaltetutakoak ere.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-presidenteak amaitutzat eman du bilkura hogeia eta hamar minutu direnean, eta aztertutako gaiak eta ebatzitakoak egiaztatzeko, nik, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamabosteko uztailaren hogeita hiru.

O.E
ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.